

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emandako gizarte zerbitzuen prezioen eguneratzea onartzea

Udal honek, 2025eko urtarrilaren 30ean egindako Osoko Bilkuraren ohiko bilkuran, Arabako lurralde-batzordearen erabakia berrestea erabaki du. Erabaki horren bidez, Aguraingo Udaleko eguneko arretarako landa-zentroaren zerbitzuaren ordenantza fiskalean eta etxez etxeko zerbitzua arautzen duen ordenantza fiskalean araututa dauden udal-eskumeneko zerbitzuen prezioen eguneratzea onartzen da. Eranskinak honela geratzen dira:

Aguraingo Udalaren eguneko arretarako landa-zentroaren ordenantza fiskala

I. eranskina

Prezio publikoaren zenbatekoa

1. tarifa. Eguneko arretarako landa-zentroa	
1.1. tarifa. Arreta pertsonalerako zerbitzua	130,18 euro/hilean
Zerbitzu osagarriak	
1.2. tarifa. Janari-zerbitzua	88,72 euro/hilean
1.3. tarifa. Arropa garbitzeko zerbitzua	8,20 euro/aldiko
1.4. tarifa. Komun geriatrikoaren zerbitzua	5,09 euro/aldiko

1.1 eta 1.2 tarifetan aurreikusitako zerbitzuak ez direnean egunero erabiltzen, ezarri beharreko prezio publikoa modu proportzionalen kalkulatu da.

II. eranskina

Behar besteko gaitasun ekonomikoa mugatzea

I. eranskinean ezarritako prezio publikoak indarrean dauden bitartean, gaitasun ekonomiko nahikoa dagoela ulertuko da eranskin honetan aurreikusitako kasuetan eta baldintzetan.

1. Hobariak zehazteari dagokionez 5.1 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, prezio publikoa osorik ordaintzeko gaitasun ekonomiko nahikoa dagoela ulertuko da, baldin eta, III. tituluko I. kapituluan aurreikusitakoaren arabera kalkulatu, hileko 1.599,00 eurokoa edo hortik gorakoa bada.

2. Halaber, gaitasun ekonomiko nahikoa dagoela ulertuko da pertsonak 50.000,00 euroko edo hortik gorako ondare konputagarria duenean, nahiz eta III. tituluko I. kapituluan aurreikusitakoaren arabera kalkulatu gaitasun ekonomikoa aurreko tauletan aurreikusitako mugak baino txikiagoa izan.

III. eranskina

Hobari aplikagarriak

I. eranskinean ezarritako prezio publikoak indarrean dauden bitartean, honako hobari hauek aplikatuko zaizkie zerbitzu bakoitzari dagokion prezio osoa ordaintzeko gaitasun ekonomiko nahikorik ez dutenei, ordenantza fiskal honen 5. artikuluan aurreikusitako moduan:

Eguneko arretarako landa-zentroen esparruan emandako arreta pertsonalerako zerbitzuak ordaindu beharreko banakako prezioa zehazteko, familiaren hileko gaitasun ekonomikoaren arabera, honako taula-baremo hau ezartzearen ondoriozko hileko zenbatekoak ezarriko dira:

FAMILIAREN GAITASUN EKONOMIKOA (EUROTAN)	KOPURU HONETARA ARTE (EUROTAN)	ZENBATEKOA	GAINERAKO KOPURU HONETARA ARTE	EHUNEKOA
500,00 arte	0,00	0,00	500,00	3,27
600,00	500,00	16,35	100,00	5,69
700,00	600,00	22,04	100,00	7,96
800,00	700,00	20,00	100,00	11,37
900,00	800,00	41,37	100,00	12,46
1.000,00	900,00	53,83	100,00	12,50
1.100,00	1.000,00	66,33	100,00	12,50
1.200,00	1.100,00	78,83	100,00	12,56
1.300,00	1.200,00	91,39	100,00	12,56
1.400,00	1.300,00	103,95	100,00	12,56
1.500,00	1.400,00	116,51	100,00	6,87
1.599,00	1.500,00	123,38	99,00	6,87
1.599,00 euro baino gehiago		Gehieneko tarifa		119,73 euro

Etxez etxeko laguntza zerbitzua arautzen duen ordenantza fiskala**I. eranskina**

Prezio publikoaren zenbatekoa

Etxez etxeko laguntza zerbitzua	6,66 euro/orduko
---------------------------------	------------------

II. eranskina

Behar besteko gaitasun ekonomiko mugatzea

I. eranskinean ezarritako prezio publikoak indarrean dauden bitartean, gaitasun ekonomiko nahikoa dagoela ulertuko da eranskin honetan aurreikusitako kasuetan eta baldintzetan.

1. Hobariak zehazteari dagokionez 5.1 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, prezio publikoa osorik ordaintzeko gaitasun ekonomiko nahikoa dagoela ulertuko da, baldin eta, III. tituluko I. kapituluaren arabera kalkulaturik, hileko 1.599,00 eurokoa edo hortik gorakoa bada.

Halaber, gaitasun ekonomiko nahikoa dagoela ulertuko da pertsonak 50.000,00 euroko edo hortik gorako ondare konputagarria duenean, nahiz eta III. tituluko I. kapituluaren arabera kalkulaturik gaitasun ekonomiko aurreko tauletan aurreikusitako mugak baino txikiagoa izan.

III. eranskina

Hobari aplikagarriak

I. eranskinean ezarritako prezio publikoak indarrean dauden bitartean, honako hobari hauek aplikatuko zaizkie zerbitzu bakoitzari dagokion prezio osoa ordaintzeko gaitasun ekonomiko nahikorik ez dutenei, ordenantza fiskal honen 5. artikuluan aurreikusitako moduan:

Etxez etxeko laguntza-zerbitzu horrengatik ordaindu beharreko prezio indibidualizatua zehazteko, familiaren hileko gaitasun ekonomikoaren arabera, honako baremo-taula hau aplikatuta ateratzen diren ordu bakoitzeko zenbatekoak aplikatuko dira:

FAMILIAREN GAITASUN EKONOMIKOA (EUROTAN)	KOPURU HONETARA ARTE (EUROTAN)	ZENBATEKOA	GAINERAKO KOPURU HONETARA ARTE	EHUNEKOA
500,00 arte	0,00	0,00	500,00	0,22
600,00	500,00	1,10	100,00	0,33
700,00	600,00	1,43	100,00	0,43
800,00	700,00	1,86	100,00	0,54
900,00	800,00	2,40	100,00	0,65
1.000,00	900,00	3,05	100,00	0,82
1.100,00	1.000,00	3,87	100,00	0,98
1.200,00	1.100,00	4,85	100,00	0,60
1.300,00	1.200,00	5,45	100,00	0,43
1.400,00	1.300,00	5,88	100,00	0,33
1.500,00	1.400,00	6,21	100,00	0,22
1.599,00	1.500,00	6,43	99,00	0,22
1.599,00 euro baino gehiago		Gehieneko tarifa		6,66 euro/orduko

Ordaindu beharreko zenbatekoa zehazteko, beharrezkoa izango da onartutako hileko ordu kopurua zehaztea; horretarako, asteko orduen batura 4,3 aldiz biderkatuko da.

Agurain, 2025eko martxoaren 14a

Alkatea

RAUL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR